

Aurkibidea

Sarrera	7
Sexualitatearen kontzeptu-esparrua	10
Sexualitatearen definizioa eta dimentsioak	10
Sexualitate hegemonikoaren kritika eta alternatiba	15
Sexualitatearen eremuak sexu-hezkuntzan	18
Sexu-hezkuntzan, gu ere eredu!	21
Egoera errealak eta jardunbide egokiak	24
Zure txanda!	66
Baliabide interesgarriak	72

Sarrera



Liburuxkaren helburua eta ikuspegia

Liburuxka honek aisialdi hezitzailearen eta hezkuntza ez-formalaren tes-tuinguruan sexualitatea lantzeko tresna izan nahi du. Sexualitatea askata-sunez, autonomiaz eta errespetuz bizitzeko bideak eskaintzen ditu, hezki-detza sexualetik (sexu-hezkuntza ikuspegi feministatik) abiatuta. Material hau hezitzaileentzako gida bat da, haur eta nerabeekin sexualitatearen inguruko hausnarketa eta lanketa sustatzeko.

Liburuxkaren helburua ez da soilik informazioa ematea, hausnarketa kri-tikoa piztea eta eredu hegemonikoak zalantzan jartzeko gaitasuna gara-tzea ere bada. Sexualitateari buruz hitz egitea ezinbestekoa da pertsona guztiek beren gorputzak, desirak eta harremanak modu osasuntsuan eta errespetuzkoan eraiki ahal izateko. Hori dela eta, ikuspegi pedagogiko eta inklusiboa garatu nahi dugu, sexualitatea bizitzaren osotasunean ulertuz eta haren dimentsio guztiak kontuan hartuz.